ZUIN
INFORMAZIO AGENDA
LAUDIOKO UDALA
2020

10/2

INFO-AGENDA
AYUNTAMIENTO DE LLODIO
2020



# EKOIZLEEI LAGUNTZEKO BONOAK

## Bonos para apoyar a las y los productores locales







# Udalak bertako ekoizleei laguntzeko bonoak jarri ditu salgai

Kanpaina urte amaierara arte egingo da hasiera batean, eta 5 euroko (3€ ordainduta), 15 euroko (10€ ordainduta) edo 30 euroko (20€ ordainduta) bonoak erosteko aukera izango da, ostegun eta larunbatetako merkatuetan tokiko ekoizleen salmenta-postuetan produktuak erosteko. Bonuak astearte eta ostegunetan erosi ahal izango dira, 10:00etatik 13:00etara, APILLen bulegoetan.

# El Ayuntamiento pone a la venta bonos para apoyar a las y los productores locales

La campaña se desarrollará inicialmente hasta finales de año, y consistirá en la posibilidad de adquirir bonos de 5€ (abonando 3€), 15€ (abonando10€) o 30€ (abonando 20€) para comprar productos en los puestos de venta de productores y productoras locales en los mercados de los jueves y sábados. Los bonos podrán adquirirse los martes y los jueves, de 10.00 a 13.00 horas, en las oficinas de APILL.









## Dendatik Etxera

Ekimena urrian hasi da, eta helburua tokiko txikizkako saltokietan elikagai galkorrak erostea eta etxean entregatzea da.

**Parte hartzen duten establezimenduak**

Laudion hamabi saltokik egin dute bat ekimenarekin: Arza harategiak; Santamaria harategiak; Maite y Feli harategiak; Mari Paz S. C. urdaitegiak; Ana Mari urdaitegiak; Aiala frutategiak; Jose frutategiak; Fruteria & Carnicera Feli &. Maite; Toñi Arraindegia; Aldama Arrandegia; La Castreña arrandegia eta Legatza arrandegia.

**Zerbitzuaren zero kostua**

Banaketak doan egingo dira herritarrentzat, astearte eta ostegunetan, 14:00etatik 17:00etara, eta ordu tarte horretan aukeratu ahal izango da eskaera zein unetan jaso nahi den.

Esperientzia pilotu honetan parte hartu nahi duten herritarrek inprimaki bat bete beharko dute parte hartzen duten establezimenduetan edo dendatik Etxera ekimenaren webgunean.

## Dendatik Etxera

La iniciativa, que ha comenzado en el mes de octubre, tiene el objetivo de facilitar la compra de alimentos perecederos en los comercios minoristas locales y su entrega en el domicilio.

**Establecimientos participantes**

En Laudio son doce los comercios que se suman a la iniciativa: Carnicería Arza; Carnicería-Charcutería Santamaria; Frutería Carnicería Maite Y Feli; Charcutería Mari Paz S. C.; Charcutería Ana Mari; Frutería Aiala; Frutería Jose; Frutería & Carnicera Feli&. Maite; Toñi Arraindegia; Aldama Arrandegia; Pescadería La Castreña y Pescadería Legatza.

**Coste cero del servicio**

Los repartos, que serán gratuitos para la ciudadanía, se realizarán los martes y jueves de 14.00 a 17.00 horas, pudiendo elegir dentro de esta franja horaria en qué momento se desea recibir el pedido.

Las y los vecinos interesados en participar en esta experiencia piloto deberán rellenar un formulario en los establecimientos participantes o a través de la página web de la iniciativa Dendatik Etxera.

# MERKATARITZA COMERCIO




## 2020ko Erosketa Karruselaren bigarren zozketa

Irabazlea Leonarda Romero Bogado izan da, eta 2.000 euroko erosketa-txartela lortu du urriaren 8ko goizean parte hartzen duten saltokietan gastatzeko.

Oraindik ere 2.000 euroko erosketa-txartel baten hirugarren zozketa bat egingo da 2020ko urriaren 16an, urriaren 2tik 15era bitartean egindako erosketengatik. Eskuratu zure txartelak kanpainari atxikitako dendetan erosita. Informazio gehiago: www.laudiocomercial.com.

## Segundo sorteo del Carrusel de Compras 2020

La ganadora ha sido Leonarda Romero Bogado que ha conseguido un vale de compra de 2.000€ para gastar en la mañana del 8 de octubre en los comercios participantes.

Aún queda un tercer sorteo de un vale de compra de 2.000 € que se realizará el 16 de octubre de 2020, por las compras realizadas entre el 2 y el 15 de octubre. Consigue tus boletos comprando en los comercios adheridos a la campaña. Más información en: www.laudiocomecial.com.

Zorionak Leonarda!

Asesoria Aiala
> Iturralde,1 - AMURRIO
Tlf. 945 890 450
Fax. 945 890 001
aiala@asesoriaaiala.com
www.asesoriaaiala.com
Fiscal - Contable - Laboral - Seguros
DECLARACIONES DE RENTA - CONTRATOS
HERENCIAS - NÓMINAS Y SEGUROS SOCIALES
ASESORAMIENTO A EMPRESAS Y AUTÓNOMOS

# HEZKUNTZA EDUCACIÓN

## Gurasoentzako bi ikastaro

Laudioko Ikastetxeetako lehen (LH) eta bigarren (DBH) hezkuntzan dauden ikasleen gurasoei zuzendutako gailu digitalen (mugikorra, tableta...) oinarrizko erabilerari buruzko bi ikastaro eskainiko ditu Laudioko Udalaren Gazteria Zerbitzuak. Ikastaro bakoitzak 4 ordukoak izango dira eta biak doakoak. Hilaren 20an eta 27an HLHIko Fabián Legorburuko Liburutegian eta 22an eta 29an Erabilera Anitzeko Gelan.

## Dos cursos para madres y padres

El Servicio de Juventud del Ayuntamiento de Llodio ofrece dos cursos sobre la utilización a nivel básico de los dispositivos digitales (móvil, tablet...) dirigidos a madres y padres del alumnado de primaria y secundaria de los centros educativos de Llodio. Cada curso consta de 4 horas y ambos son gratuitos. Los días 20 y 27 será en la Biblioteca del CEIP Fabian Legorburu de Areta, y los días 22 y 29 en la Sala Multiusos.

### Ordutegia Horario

1. Ikastaroa Curso: urriak 20 eta 27 de octubre. 16:00-18:00
2. Ikastaroa Curso: urriak 22 eta 29 de octubre. 17:00-19:00

## Robotika zer den ezagutu nahi duzu?

Udalaren Gazteria Zerbitzuak on line robotika ikastaroa prestatu du 10-18 urte bitarteko gazteentzat. STEAM filofiaren arabera, ezagutza teknikoak landuko dituzte ikuspegi artistikotik eta sormena sustatuko duten proiektuen bidez. Ikastaroaren material guztia izena ematean bidaliko da. 3 ikastaro izango dira; 10-12 urteentzako, 13-15 urteentzako eta 16-18 urteentzako. Gehienez 10 pertsona egon daitezke ikastaro bakoitzean.

## ¿Quieres conocer más sobre la robótica?

El Servicio de Juventud del Ayuntamiento ofrece un curso on line de robótica para jóvenes de 10 a 18 años. Bajo la filosofía STEAM, abordarán los conocimientos técnicos desde una perspectiva artística y con proyectos donde se potenciará su creatividad. El material será facilitado con la inscripción. Son 3 cursos en función de la edad; para 10-13 años, 13 a 15 años y 16 a 18 años. En cada curso podrá estar un máximo de 10 personas.

### Programa Programa

Azaroaren 4an hasiko da eta martxoan amaituko da (biak barne)
Comienza el 4 de noviembre y finaliza en marzo (ambos incluidos)
Ordutegia Horario: asteazkenero Todos los miércoles: 18:00-19:30
Ikastaro bakoitzeko prezioa guztira El precio total por curso: 50€

### Izen ematea Inscripciones

Laudioko Udalean. Gazteria Zerbitzua Ayuntamiento Llodio. Servicio de Juventud : 8:00-14:30.
Telefonoa Teléfono: 94 403 48 50.
Posta elektronikoa Correo electrónico: hezkunta@laudio.eus.
Izen-abizenak, telefono-zenbakia eta adina adierazi behar dira. Se debe indicar nombre y apellidos, número de teléfono y edad.

## Zibersegurtasuna nire negozioan?

Merkataritzan eta ostalaritzan lan egiten dutenentzako doako tailerra da. Urriaren 22an izango da, arratsaldeko 15:30tik 17:00etara, interneten bidez, ZOOM plataformaren bidez, hain zuzen ere.
Izena emateko: enpresetarakolaguntza@laudio.eus helbidera email bat bidali honako hauek adieraziz:

> Izen-abizenak
> Telefono-zenbakia
> Helbide elektronikoa
> Zein negoziotakoa den
> Bizilekua duen udalerria

## ¿Ciberseguridad en mi negocio?

Es un taller gratuito dirigido a personas que trabajan en comercio y hostelería. Tendrá lugar el 22 de octubre, de 15:30h a 17:00h, a través de internet, mediante la plataforma ZOOM. Para inscribirse: manda un email a enpresetarakolaguntza@laudio.eus indicando:

> Nombre y apellidos
> Nº de teléfono
> Email
> Negocio al que pertenece
> Municipio de residencia



PARTE HARTU

## Igogailuak etxebizitzeetan izateko baldintzak

Hasierako onespena eman zaio lehendik dauden bizitegi izaerako eraikinetan igogailuak jartzeko baldintzak arautzen dituen udal ordenantzaren aldaketari. Aldaketak gaur egungo ordenantzak ezarritako gutxieneko neurria kentzen du eta, ohiz kanpoko kasuetan neurri txikiagoko igogailuak instalatzea errazten du, betiere, udal teknikariek horren aldeko txostena eman ondoren.

Testu hori jendaurrean jartzen da, interesdunei entzunaldia eskatzeko, hogeita hamar egun baliodunekoo epean iragarkia Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik zenbatzen hasita. Epe horretan edonork aurkeztu ahal izango ditu alegazioak, erreklamazioak, iradokizunak eta ekarpenak udal webgunearen “Parte hartu” estekaren bidez.

## Condiciones para instalar ascensores en viviendas

Se da aprobación inicial de la modificación de Ordenanza municipal reguladora de las condiciones para la instalación de ascensores en edificaciones existentes de carácter residencial. La modificación recoge la eliminación de la medida mínima de tamaño de ascensor establecida en la ordenanza actual y permite en casos excepcionales previo informe técnico del Ayuntamiento instalar ascensores.

Se abre la exposición al público, en general, y audiencia a las personas interesadas, en particular, del texto por un plazo de treinta días hábiles desde la publicación de anuncio en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Álava. Durante dicho período cualquier persona podrá presentar alegaciones, reclamaciones, sugerencias y aportaciones a través del apartado “Participa” de la página web municipal.

PARTE HARTU

## Animaliak edukitzea eta babestea, nola?

Herritarren eskura jartzen da Animaliak babesteko eta edukitzeko arautzen duen ordenantza alegazioak, erreklamazioak, iradokizunak eta ekarpenak aurkezteko, udalaren webguneko “Parte hartu” atalaren bidez. Epea 2020ko urriaren 23an amaituko da.

Ordenantza honen helburu nagusia animaliak babesteko, edukitzeko eta saltzeko arauak ezartzea da, animalien eta pertsonen arteko bizikidetza harmonizatuz, eta animaliek jaso behar dituzten gutxieneko arretak finkatzea tratuari, higieneari eta zaintzari, babesari eta garraioari dagokienez, besteak beste.

## Protección y tenencia de animales, ¿cómo?

Se pone a disposición de la ciudadanía la Ordenanza reguladora de la protección y tenencia de animales para presentar alegaciones, reclamaciones, sugerencias y aportaciones a través del apartado “Participa” de la página web municipal. El plazo termina el 23 de octubre de 2020.

Esta ordenanza tiene como objetivo principal establecer normas para la protección, tenencia, y venta de animales, armonizando la convivencia de los mismos y las personas, así como fijar las atenciones mínimas que han de recibir los animales en cuanto a trato, higiene y cuidado, protección y transporte, entre otras.



HIRIGINTZA

## Laudiok Hiri Mugikortasun Iraunkorreko Plana egiteko prozesua abian jarri du

Hiri-mugikortasun osasungarriagoa, seguruagoa eta jasangarriagoa bultzatzeko helburuarekin, Laudioko Udalak Hiri Mugikortasun Iraunkorreko Plana (PMUS) egingo du.

PMUSa ikuspegi tekniko batetik egingo da, mugikortasunean adituak diren langileen lanaren bidez, bai eta ikuspegi sozial batetik ere, eta diseinurako, laudioarren parte-hartzea eta ekarpena hartuko dira kontuan.

Hori dela eta, parte-hartze prozesu bat jarriko da martxan, mugikortasunaren arloan herritarren ekarpenak, iritziak eta iradokizunak jasotzeko. Udalak inkesta anonimo bat banatuko du Laudioko hainbat etxetara, herritarrek udalerrian dituzten mugikortasun-ohiturak ezagutzeko, eta horiek abiapuntu gisa erabiliko dira egoeraren diagnostikoa egiteko.

## Laudio pone en marcha el proceso de elaboración del Plan de Movilidad Urbana Sostenible

Con el objetivo de impulsar una movilidad urbana más saludable, más segura y sostenible, el Ayuntamiento de Laudio realizará un proceso que permitirá elaborar el Plan de Movilidad Urbana Sostenible (PMUS).

La elaboración del PMUS se realizará tanto desde una perspectiva técnica, mediante el trabajo de personal experto en movilidad, como desde una perspectiva social, contando para su diseño con la participación y la contribución de las y los laudioarras.

Por esto, se pondrá en marcha un proceso participativo, con el objetivo de recoger todas las aportaciones, opiniones y sugerencias de la ciudadanía en materia de movilidad. El Ayuntamiento va a distribuir una encuesta anónima a diferentes domicilios de Laudio para conocer los hábitos de movilidad de la ciudadanía en el municipio, y que servirán como punto de partida para la elaboración del diagnóstico de situación.

# UDALA/ AYUNTAMIENTO



## OBRAK

### Saneamendu-sare berria Landaluze kalean

Landaluze kaleko saneamendu-sarea kontserbazio-egoera txarrean dago, eta kolektore-tarte oso degradatuak daude. Zenbait puntutan, euri-uren sarea ur beltzen sarearekin elkartzen da. Arazo horri irtenbidea emateko, Laudioko Udalak proiektu bat diseinatu du: kaltetutako hodiak osorik berritzea.

Jarduketa nagusiak honako hauek dira: asfaltozko zoladura moztea, zanga makineria osagarriarekin egindako planoetan zehaztutako kotaraino irekitzea, hondeatzea, materiala hautatzea eta hondakindegira bidaltzea, saneamendu-sarea berritzea eta zanga indusketaren berezko materialarekin betetzea.

**Guneak**
Saneamendu-sarea eraberritzeko, Landaluze kalean zehar PVCzko eroanbide bat jarriko da, lotura elastikoak eta gomazko juntura dituena. Eroanbide hori Zumalakarregi Etorbideko bidegurutzeraino luzatuko da, eta bertan dagozkion erregistro-putzuetara konektatuko da.

**Zenbatekoa eta epea**
Guztira, 190.796,39 euroko inbertsioa eta lau hilabete inguruko egikaritze-epea izango du.

### Nueva red de saneamiento en la calle Landaluze

La red de saneamiento del tramo Landaluze Kalea se encuentra en mal estado de conservación con tramos de colectores muy degradados, existiendo varios puntos donde se juntan la red de pluviales con la de fecales. De cara a dar solución a esta problemática, se ha diseñado un proyecto consistente en la renovación integral de las conducciones afectadas.

Las principales actuaciones para realizar consisten en el corte del pavimento asfáltico, la apertura de zanja hasta cota definida en planos con maquinaria auxiliar, la excavación, selección de material y envío a vertedero de material de desecho; renovación de red de saneamiento y relleno de la zanja con material propio de la excavación.

**Zonas**
Para realizar la reforma de la red de saneamiento se va a colocar una conducción de PVC con uniones elásticas con junta de goma a lo largo de Landaluze Kalea. Esta conducción se prolongará hasta el cruce con Zumalakarregi Etorbidea donde se conectará a los pozos de registro correspondientes.

**Importe y plazo**
Cuenta con una inversión total de 190.796,39 euros y un plazo de ejecución aproximado de cuatro meses.



## KIROLA

### Martxoaren 12a baino lehen ordaindutako kirol abonuen itzulketa

Ordainketak helbideratuta dituzten pertsonek automatikoki jasoko dute itzulketa, gainerakoek, berriz, urriaren 1etik 31ra bitartean joan beharko dute HAZen eskatzeko. Era berean, Alarma-egoera hasi aurretik ordaindutako ikastaroen matrikulen zenbateko osoa itzuliko da.

**Nola eskatu?**
**1.** HAZ-ra joan 8:30etatik 14:30etara, eskaerarekin.
**2.** Gaia azaltzen duen mezu elektroniko bat bidali eta eskabidea beteta bidali laudio@laudio.eus helbidera.
**3.** Sinadura elektronikoa izanez gero, www.laudio.eus webguneko egoitza elektronikoaren bidez egin.

Eskaera-inprimakia webgunean dago eskuragarri, "Udal izapideak" atalean.

### Devolución de los abonos deportivos pagados antes del 12 de marzo

Aquellas personas que tengan domiciliado los pagos recibirán automáticamente la devolución, el resto deberá acudir al SAC entre el 1 y el 31 de octubre y solicitarlo. También se devolverá el importe íntegro de las matrículas de los cursillos abonadas antes del comienzo del Estado de Alarma.

**¿Cómo solicitar?**
**1.** Acudiendo al SAC en el horario de 8:30-14:30 con la solicitud completa.
**2.** Mandando un correo indicando el asunto y adjuntando la solicitud rellenada a laudio@laudio.eus.
**3.** Si se tiene la firma electrónica, realizarlo a través de la sede electrónica de la página web www.laudio.eus.

El formulario está disponible en la página web, en el apartado "Trámites municipales".

# BERDINTASUNA/ IGUALDAD

### LAIAEskola

Aiaraldeko LAIAEskolaren ikasturte berri honen programazioarekin indartsu dator berriro ere; badakigu erronka handia izango dela, pandemia-egoera dela eta; horregatik, jarduera asko online edo modu birtualean egingo dira. Adi gure udal webgunera, baita sare sozialetara ere programazioaren berri ematen joango baikara.
Interesgarria izango da parte hartzea ekimen honetan; gure burua zaintzen, ikasten eta emakumeen eta gizonen benetako berdintasuna sustatzea dute eta helburutzat.

### LAIAEskola

Vuelve con fuerza con la programación de este nuevo curso de LAIAeskola en Aiaraldea; sabemos que va a ser todo un reto dada la situación de pandemia en la que nos encontramos, de ahí que buena parte de las actividades serán de manera online o virtual. Atentas a la página web municipal, así como a la redes sociales donde iremos anunciando próximas citas.
Será interesante participar en estas actividades que tienen como objetivo cuidarnos, aprendery compartir espacios que promuevan la igualdad real de mujeres y hombres.




GIZARTEA

## Udalak jarduera-protokolo instituzional bat onartu du lan-istripu larri edo hilgarriei erantzuteko

Laudioko edozein enpresatan istripuren bat gertatzen denean edo udalerrian erroldatutako langileengan eragina izan dezakeenean abiaraziko den prozedura onartu du Udalbatzak. Protokolo osoa eskuragarri dago udal webgunean.

## El Ayuntamiento aprueba un protocolo de actuación institucional para responder ante accidentes laborales graves o mortales

El pleno municipal ha dado luz verde a un procedimiento que se activará cuando ocurra un accidente en cualquiera de las empresas de Laudio, o que pueda afectar a personas trabajadoras empadronadas en el municipio. El protocolo completo está disponible en la página web municipal.

ZERBITZUAK

## Herritarrentzako Arreta

Laudioko Udalak, ahal den neurrian, online kudeaketak egitera animatzen ditu herritarrak, eta ezinbesteko diren kasuetan soilik bertaratzea.
Kudeaketak 010 telefono-zenbakiaren bidez egin daitezke edota email baten bidez laudio@laudio.eus helbidean. Eskabideak egoitza elektronikoaren bidez ere aurkez daitezke udalaren webgunean: www.laudio.eus.

Udaletxera joanez gero, jakin ezazue edukiera mugatua izango dela, higiene- eta osasun-neurriak eta erabiltzaileen eta zerbitzuko arreta-langileen arteko segurtasun-tarteak errespetatu behar direla, baita musukoaren derrigorrezko erabilera ere.
> Ordutegia: 8:30etatik 14:30era.

## Atención a la Ciudadanía

El Ayuntamiento de Llodio anima a la ciudadanía a realizar, en la medida de lo posible, las gestiones online, acudiendo de manera presencial únicamente cuando sea imprescindible.
Las gestiones se pueden realizar llamando al 010 o mandando un correo electrónico a la dirección laudio@laudio.eus. Las solicitudes también se pueden presentar a través de la sede electrónica en la página web del ayuntamiento www.laudio.eus.

En caso de acudir presencialmente, recordad que el aforo será limitado, se deberán respetar las medidas higiénico-sanitarias y las distancias de seguridad entre usarías/os y el personal de atención del servicio, así como el uso obligatorio de la mascarilla.
> Horario: de 8:30 a 14:30.

ZERBITZUAK

## Tamaina handiko hondakinen bilketa

Urrian tamaina handiko hondakinen bilketa asteartetan eta ostegunetan egingo da; beraz, aurreko gauean (astelehenetan eta asteazkenetan) utzi beharko dira.
Bilketa egitera pasa daitezen, abisua eman behar da APP: Lerro Berdea erabiliz edo aldez aurretik 900 101 476 telefonora deituz.

## Recogida de voluminosos

La recogida de voluminosos de octubre se realizará los martes y jueves, por lo que se deberán depositar la noche anterior (lunes y miércoles).
Asimismo, se recuerda que es necesario dar aviso a través de la APP: Línea Verde o llamando previamente al teléfono 900 101 476.



## Noiz egin behar dut ziklomotorraren IATa?

Laudion Ibilgailuen, Ziklomotorren, Azterketa Teknikoa 2020ko azaroaren 19an egitea aurreikusita dago. Aurreko kanpainan (2019) egin zen leku berean izango da. 28,91 euro ordaindu behar dut- zenbateko zehatzarekin joatea eskatzen da-.

## ¿Cuándo tengo que pasar la ITV de mi ciclomotor?

Está previsto que la Inspección Técnica de Vehículos, Ciclomotores, en Llodio se realice el 19 de noviembre de 2020. El lugar es el mismo que el de la campaña anterior (2019). Me costará 28,91 euros –se ruega acudir con el importe exacto-.

### EGUTEGIA CALENDARIO

**16/11/20** (astelehena/lunes)
Gorliz- 9:30
**17/11/20** (asteartea/martes)
Plentzia-9:30
**18/11/20** (asteazkena/miércoles)
Amurrio-9:30
**19/11/20** (osteguna/jueves)
Laudio-9:30

# EUSKARA/ EUSKARA

## EUSKARAZ praktikatzeko eta bizitzeko...

aukerak eskura izango dituzu beste ikasturte batez, zure neurrira eta ordutegietara egokituak, familia giroan zein bakankako planean egotekoak eta, gainera, Udalak AEKrekin egindako zerbitzu-kontratu bati esker, erabat doakoa.

BERBALAGUN deitzen da ekimena eta parte hartzeko eskatzen zaizun bakarra 16 urtetik gorakoa izatea (familia taldetan izan ezik, noski) da eta izena ematea, praktika-talde baten txertatzeko. Aurten, osasun egoera bereziari egokituta, era guztietako moldaketak erta berrikuntzak daude.

**Eska ezazu argibidea:**

> Udaletxean (944034890 / euskara@laudio.eus),
> Zure euskaltegian
< Zuzenki lotu koordinatzailearekin (607673744 / aiaraldea@aek.eus).

## Practicar y vivir en EUSKERA...

es algo muy simple con las opciones que un curso más ponemos a tu disposición, adaptadas a tus necesidades y horarios, en plan familiar o individual y, además, totalmente gratuito gracias al contrato de servicios que el Ayuntamiento mantiene con AEK.

BERBALAGUN es el nombre de la iniciativa y tan sólo te pedimos a cambio que tengas más de 16 años (excepto en los grupos de familias, claro) y que te inscribas para que podamos integrarte en un grupo. Este año además, adaptados a la extraordinaria situación sanitaria, se han adecuado las iniciativas clásicas y se han activado otras totalmente novedosas.

**Para participar solicita información:**

> En el ayuntamiento (944034890 / euskara@laudio.eus)
> En tu euskaltegi
> Directamente con el/la coordinador/a (607673744 / aiaraldea@aek.eus).

## Euskara bekak eska ditzakezu!

Udan (ekainean, uztailean, abuztuan edota irailean) euskara ikasten egon bazara, beka bat dagokizu. Horretarako eskaera egiteko epea urriaren 16ra arte egongo da irekita. Adi egon eta eskatu zurea! Eskaera egiteko bete behar duzu udal webgunearen "Laguntzak eta lehiaketak" atalean dagoen eskaera-inprimakia.

Hala ere, zalantzak izatekotan jo telematikoki Hizkuntza Normalkuntza eta Identitatea udal zerbitzura: euskara@laudio.eus / 651 703 133.

## ¡Puedes solicitar las becas de euskera!

Si has estado estudiando euskera en verano (junio, julio, agosto y/o septiembre), dispones de una beca. El plazo para solicitarla permanece abierto hasta el 16 de octubre. ¡No lo olvides y pide la tuya! Para ello debes rellenar el formulario de solicitud disponible en el apartado "Subvenciones y concursos" de la página web municipal.

Para cualquier duda puedes contactar con el servicio municipal de Normalización Lingüística e Identidad: euskara@laudio.eus / 651 703 133.

# GIZARTEA/ SOCIEDAD







## Emakumeen aldeko kanpaina

Laster iritsiko da Laudiora "Ellas" kanpaina, bularreko minbiziaren aurkako elkartasun-kanpaina, Aiarako Kuadrilarekin, ECOVIDRIOrekin eta Sandra Ibarra Fundazioarekin lankidetzan.

Laudioko Udalak ere bat egiten du bularreko minbiziaren aurkako Munduko Egunarekin, eta herritarrak ekimen solidario horretan parte hartzera deitzen ditu. Ekimen horren helburua beira birziklatzearen garrantziaz jakinaraztea da, baita minbiziaren aurkako borrokan ahal den laguntza eskaintzea ere.
Iglu motako bi edukiontzi arrosak Alberto Acero plazan egongo dira urriaren 16tik 31ra.

## Campaña por ellas

Próximamente llegará a Laudio la campaña "Por Ellas", campaña de solidaridad para la lucha contra el cáncer de mama en colaboración con la Cuadrilla de Ayala, ECOVIDRIO y la Fundación Sandra Ibarra.

Con ello el Ayuntamiento de Laudio, se adhiere al Día Mundial contra el cáncer de mama, haciendo partícipes a la población de esta iniciativa solidaria que busca concienciar no solo acerca de la importancia de reciclar vidrio sino también aportar un granito de arena a la lucha contra el cáncer.
Los dos contenedores rosas tipo iglú permanecerán instalados en la plaza Alberto Acero del 16 al 31 de octubre.

# KULTURA
# CULTURA

## LAUDIO TOP ZINEMA

Edozein kexa edota iradokizun izatekotan zerbitzuari buruz, bidali diezagukezue laudiotopzinema@laudio.eus helbidera.

Para cualquier queja o sugerencia acerca del servicio, podéis mandarnos un correo electrónico a laudiotopzinema@laudio.eus.

### FILMAK **PELÍCULAS**

- **Urriak 17** octubre. 17:00 // 20:00.

AKELARRE. VOS. +12. 3€




- **Urriak 24** octubre. 17:00 // 20:00.

MI GRAN PEQUEÑA GRANJA. 3€

- **Urriak 25** octubre. 17:00.

PIRATA ARRATOIA. 3€

- **Urriak 31** octubre. 17:00 // 20:00.

THE BRA. +7. 3€

## Zatoz San Roke Musika Elkartera!

Matrikula egiteko epea luzatu da eta zure datuak esteka honetan bete ondoren egin dezakezu: https://forms.gle/Vi2AWPLoFeudjuueA edota zure datuak zuzendari@bandallodio.com helbidera bidaliz.

## ¡Forma parte de la Agrupación Musical San Roque!

Se amplía el plazo de la matrícula que se puede realizar pinchando en el siguiente enlace y rellenando vuestros datos: https://forms.gle/Vi2AWPLoFeudjuueA o enviando tus datos a zuzendari@bandallodio.com.

# ONDAREA
# PATRIMONIO

## Ermualdeko historia-jardunaldiak

Urriaren 31n, larunbatean, "Ermualde sagardogile. Grandes máquinas de sidra en casas, caseríos y casas-torre vascas, hace 500 años" hitzaldia eskainiko du Alberto Santanak historialariak. Ermuko Andra Mari elizan izango da, 18:30ean. Ezinbestekoa da aldez aurretik izena ematea (urriaren 19tik aurrera): 651 703 133 / euskara@laudio.eus. Leku mugatuak (40). Doakoa.

## Ermualdeko historia-jardunaldiak

El 31 de octubre, sábado, tendrá lugar la charla "Ermualde sagardogile. Grandes máquinas de sidra en casas, caseríos y casas-torre vascas, hace 500 años" a cargo del historiador Alberto Santana. Será en la iglesia de Santa María del Yermo, a las 18:30. Es obligatorio inscribirse con antelación (a partir del 19 de octubre): 651 703 133 / euskara@laudio.eus. Aforo limitado (40). Gratuito.

### LANDA GARAPENA

## Zabalik 2021rako larreak eskatzeko epea

Inskripzioak urriaren 31ra arte egingo dira, Laudioko Udaletxeko Hiri eta landa garapena, Zerbitzuak eta auzoak arloan, Herriko Plazako 3. solairuan, astelehen eta asteazkenetan, 9:00-14:00 ordutegi barruan.

Aurkeztu behar den dokumentazioa hauxe da: aldez aurretik lehenago eman ez bada, ustiapen txartelaren kopia, ustiapen horri lotutako eta erantsitako lursail eta instalazioen aitorpen inprimakia eta eskaera herri larreetara abereak sartzeko. Eskaera egiteko inprimakiak eskura daude Herritarren Arretarako Zerbitzuan edota udalaren webgunean. Behor ganaduaren kasuan, nahitaezkoa da zaldi eta Behorrak Identifikatzeko Dokumentazioaren (BID) kopia. Eskaerak aurkezteko epe barruan dokumentazio guztia aurkeztu ez duten eskabideak ez dira onartuko. Abeltzainak ahuntz, ardi eta behor ganadua markatzeko krotalak ez baditu, eskatu egin beharko ditu. Ganadua edo abelburu oro markatuta egon behar da herri larrera sartu aurretik.

**Larreetako Batzordeak erabaki duen neguko atsedenaldia:**

- Goienuriko Arraño larrea, urtarrilaren 1etik apirilaren 15era
- Larreako Arraño larrea, urtarrilaren 1etik apirilaren 1era
- Elorritxugana larrea, otsailaren 15etik apirilaren 15era
- Mostatxa-Pagolar larrea, urtarrilaren 15etik martxoaren 15era
- Kamaraka-Goikogana-Alpitxu larrea, urtarrilaren 15etik martxoaren 15era

### DESARROLLO RURAL

## Abierto el periodo para la solicitud de pastos 2021

Las inscripciones se realizarán hasta el 31 de octubre, en el Área de Desarrollo urbano y rural, Servicios y barrios del Ayuntamiento de Llodio en Herriko plaza, 3º planta, los lunes y miércoles en horario de 9:00 a 14:00.

Es necesario aportar copia de la tarjeta de explotación, si no se ha entregado anteriormente, así como la última calificación sanitaria, el impreso de Declaración de parcelas e instalaciones ligadas a su explotación y el de solicitud de acceso a los pastizales públicos. Los impresos estarán disponibles en el Servicio de Atención al Ciudadano y/o en la web municipal. En el caso de equinos es necesaria copia de la documentación de identificación equina (DIE). No se admitirán solicitudes que no hayan aportado toda la documentación completa dentro de las fechas de admisión. Quienes no dispongan de crotales municipales para marcar el ganado caprino, bovino y caballar deberán solicitarlos. El ganado debe estar marcado antes del acceso al pastizal público.

**Periodo de descanso invernal aprobado por la Comisión de pastos:**

- Pastizal de Arraño Handia 1 enero al 15 de abril
- Pastizal de Arraño Txikia 1 enero al 1 de abril
- Pastizal de Elorritxugana 15 febrero al 15 de abril
- Pastizal de Mostatxa-Pagolar 15 enero al 15 de marzo
- Pastizal de Kamaraka-Goikomendi-Alpitxu 15 enero al 15 de marzo